

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko maiatzaren 11. VIII. urtea. 2.223. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Ibarrako VIII. Garagardo Festan 700 lagunek edukiko dute afaltzeko aukera

Bihartik igandera bitarte adin guztietako 100 herritar baino gehiago ariko dira auzolanean Ibarrako plazan, jairako egokitu diren bi karpa erraldoietan

Aurten 20 garagardo eta 5 kalimotxo mota desberdin egongo dira; menua ohikoa izango da, eta herriko produktuek bere txokoa izango dute ◦7



→ Sahara inoiz baino gertuagotik ezagutzeko aukera.

Tolosaldea Sahararekin elkarteak hamaika ekimen antolatu ditu ondorengo asteetan, saharar herria laguntzeko eta gertutik ezagutzeko; 'Maiatza borrokan', 'Oporrak bakean' eta 'Elkartasun karabana' rekin batera, ekainaren 18an kontzertua antolatu dute. ◦4

Lau legealdiren alde txarrak eta onak hiru alkate beteranoen ahotan

Martzelino Dorronsorok, Baliarrainen, Marimi Ugaldek, Iruran, eta Iñaki Amenabarrek, Asteasun, 16 urte egin dituzte udaletxean alkate bezala ◦5



2011-2012 ikasturterako
AURREMATRIKULA ekainaren 1etik 10era

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):
Ite-apsinketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):
Estetika

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A ereduak):
Estetika eta Edertasuna (LOE)

GIPUZKOAKO IKASTETXE OFIZIAL BAKARRA. IKASKETAK DOAN
San Ignazio, 25 • Tel.: 943-13 42 23 Fax: 943-89 41 96
01229 Iruñea • 20080 ZARAUZ

Olako eremua industrialde bilakatzeko azken pausoa falta da

Berpartzelazioaren erabakia maiatzaren 22ko udal hauteskundeetatik ateratzen den udalbatzak hartu beharko du ◦5

Villabonako zikloturista martxa izango da igandean

Irrintzi Txirrindulari Elkarteak antolatu du proba; egunean bertan izena emateko aukera egongo da Malkar plazan ◦6

Aska ezazu irudimena zure DISEINATU



ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →



Buen eta Urgell Topic-en izan dira

Gipuzkoako Ahaldu Nagusi izateko hautagaiak egungo Aldundiaren kultur politika salatu du

M. Ugartemendia Tolosa

Astelehen eguerdian Tolosako Topic-en izan zen Miguel Buen, Gipuzkoako ahaldu nagusia izateko PSE-EEren hautagaia. Bera-ekin izan ziren Blanca Urgell, kultura sailburua, Jose Ig-

nacio Asensio, Tolosako alkategaia, eta Julio Astudillo eta Oscar Renedo, Gipuzkoako Foru Aldundirako Oriako hautes barrutiko lehenen eta bigarren hautagaiak.

Bertan, Buenek Aldundiak izandako politika kulturala kritikatu zuen. Bere esanetan, Topic-ek ez du Aldundiaren laguntzarik jaso. Aldiz, Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa jaso duela adierazi zuen. Olanok ez du azpiegitura honek behar zuen erantzunik eman, Buenen ustez.



Renedo, Astudillo, Asensio, Buen, Urgell eta Uribe. HITZA

Larraulgo Herri Aukerak bere helburu eta konpromisoak aurkeztuko ditu

Herri Aukeraren aurkezpena bihar izango da, 19:30ean, Antton Amonarriz kultur etxean

M.U. Larraul

Larraulgo Herri Aukera taldeak maiatzaren 22ko hauteskundeetarako helburuak eta konpromisoak aurkezteko ekitaldi publiko egingo du bihar, ostegunean, 19:30ean, Antton Amonarriz kultur etxean. Herri Aukera osatzeko zerrenda herri bozketan aukeratzeko da, eta aurten 70 herritarrek parte hartu dute bozketan honetan. Guztira 12 hautagai aurkeztu ziren, eta hautagaiak bozka hauek jaso zituzten: Aritz Usandizagak 59, Karlos Irazuk 47, Jon Tejeriak 45, Jexux Mari Irazuk 43, Ainhoa Martinek 43, Martin Aranburuk 40, Andres Aristik 35, Xabier Mujikak 25, Gotzon Jauregik 21, eta Imanol Aranzabek 18. Usandizagak uko egin dio alkategai izateari, eta bozketaren emaitzari jarraituz Irazu proposatu dute alkategai. Usandizaga alkateorderako hautagaia izango da.

Bilduren ekitaldi nagusia Tolosan

Elkarlanean, herritarrek herritarrentzat, egindako Tolosa bat nahi dutela adierazi zuten Iriarte alkategaiak

M.U. Tolosa

Bilduk ekitaldi nagusia egin zuen Tolosan, eta bertan izan ziren Martin Garitano, Gipuzkoako Ahaldu Nagusi izateko hautagaia, Ibai Iriarte, Tolosako alkategaia, eta Onintza Lasa, Tolosako

Bilduko zerrendakidea. Iriartek «Tolosak aldaketa garaia» bizi duela adierazi zuen. Prestatuak daudela eta programa bat dutela baieztatu zuen. Eta, alkatetzan gauzak «beste modu batera» egin nahi dituztela ere esan zuen. Elkarlanean sinesten dute, eta herritarrei, udalaren ateak ireki nahi dizkiete, «haize berriak sartu eta udala freskatzeko garaia heldu delako». «Gauzak egiteko beste modu bat» nahi dute. «Herritarrok herritarrentzat eraikitako Tolosa». Eta, horretarako, herritarren babesa eskatu zuten.



Martin Garitano, Gipuzkoako zerrendaburua, Tolosan. REBEKA CALVO

Ezker Batuak lanpostua sortzea du helburu

Vieitesek, Gonzalez, Gipuzkoako ahaldungaiarekin, EBren proposamena aurkeztu zuen Tolosan

R.C. Tolosa

Tolosako Ezker Batuak ere bere proposamenen berri eman zuen, informazioa banatzen zuten heinean. Alderdiaren alkategaiak,

Jose Mari Vieitesek, hitz egin zuen aurkezpenean, Arantza Gonzalez Gipuzkoako ahaldungai ondoan zuela. Vieitesek esan zuenez, EBren lehentasuna lanpostuak sortzea izango da. Horiek horrela, Apatta Errekako industrigunea zabaltzearen alde egin zuen. Era berean, Tolosan etxebizitzak eskuratzeko dagoen arazoa nabarmendu zuen, eta esan zuen hutsik dauden etxebizitzak inguruko azterketa bat egiteko asmoa dutela.



Tolosako Ezker Batuako zerrendakideak, Karrera eta Gonzalezekin. R.C.

Irudia ◊ Gaztelu



GAZTELUKO BILDU

Udal hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du Bilduk Gaztelun. Alkategai Mikel Belloso izango da. Atzetik, joango dira: Aitziber Barandarain, Patxi Iturriaga, Yoana Mendez eta Joxe Mari Etxeberria. Ordezko bezala Garikoitz Aranzabal, Yurre Olano eta Jose Manuel Arias. HITZA

Irudia ◊ Tolosa



ARALAR TOLOSAN

Tolosako Aralarrek bere proposamenen berri eman du. Horretarako informazio orriak banatzen aritu ziren alderdikideetako batzuk herritarren artean. Iñaki Irazabalbeitia alkategaia, Txepa Agirrezabala eta Alvaro Atorrasagasti izan ziren bertan. REBEKA CALVO

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →



Marimi Ugalde, Martzelino Dorronsoro eta Iñaki Amenabar eskualdeko alkaterik beterranoenak dira. Agintean egon diren hamasei urte hauek ekarri dituzte gogora.

Hamasei urte agintean

Maier Ugartemendia/Itzea Urkizu

Alkatetzan laugarren legealdia bukatzeaz daude Marimi Ugalde, Martzelino Dorronsoro, eta Iñaki Amenabar. Irurako, Baliarraingo eta Asteasuko udal-letan aritu dira lanean, hurrenez hurren.

Marimi Ugaldek azken legealdia izango du honakoa; Martzelino Dorronsoro eta Iñaki Amenabar, aldiz, berriro izango dira alkategai.

Alkatetzara sarrera

Ugalde eta Dorronsoro, nolabait herritarrek eskatuta sartu ziren alkatetzan. Marimi Ugalde lau urtez Irurako Udaleko kultura zinegotzia izana zen, eta hurrengo legealdirako zerrendan lehenengo postuan joateko proposatu zioten. Martzelino Dorronsoro berriaz, zortzi urte udal-letan pasa zituen aurreko alkateak hala eskatuta sartu zen Baliarraingo alkatetzan: «ez nuen aukerarik izan».

Iñaki Amenabar bere alderdiak proposatu zion alkate izatea, eta 24 urte zituen arren, erroka onartzea erabaki zuen.

Gertaera desberdinek eraman dituzte hamasei urtez alkatetzan egotera. Marimi Ugalde, esaterako, ilegalizaturiko alderdi bateko kidea zen 2003ko hauteskundean. Iruran bozka gehien jaso zituen alderdiko hautagaia ez ziren herritarrek, eta uko egin zieten alkatetzari: «herri bat kudeatzeko bertako herritarrek behar zirela ikusi zuten». Martzelino Dorronsorok, aldiz, halabeharrez jarraitu behar izan du alkatetzan, urte hauetan guztietan; ez du ordezkarik bilatu herrian. Asteasuko Iñaki Amenabar, bozka gehien jaso dituen hautagaia izan da azken lau legealdietan.

Hirurentzat ezustekoa izan da hainbeste urtetan agintean egotea. Amenabarri hamasei urteak «azkar» pasa zaizkio. Dorronsorori «zaila» egin zaion arren, aurrera jarraitu behar izan du herritarren babesarekin. Era berean, Ugaldek ere babes horri esker jarraitu ahal izan du alkatetzan, eta

«eskerrak» ematen dizkie herritarrei.

Une onak eta txarrak

Lau legealdik askorako ematen dute, eta hiru alkate hauek, momentu onak nahiz txarrak bizi behar izan dituzte urte luze hauetan. Hala ere, momentu onak gehiago izan direla onartu dute hirurek, eta herritarrek eman dieten babesak une txar horiek gainditu dituela; agindutako proiektuak betetzen ikustean, hauen esker ona jasotzen dute.

Ibiurko urtegiaren auzia edo udal-letan bizi izandako giro asaldatuak aipatu dituzte une zail horien adibidetzat. Zerbaitetan herritarrei ezezkia eman beha-



24 urte nituela onartu nuen zerrendaburu izateko erroka, baina denbora azkar pasa zait»

IÑAKI AMENABAR
Asteasuko alkatea

«Baliarrain bezalako herri txikiak beharrezkoak gara, herri handiak izango badira»

MARTELINO DORRONSORO
Baliarraingo alkatea

«Urte hauetan guztietan ez dut ikasi ezezkorik ematen, oso zaila egiten baitzait»

MARIMI UGALDE
Irurako alkatea

rria ere, alkate izatearen alderik deserosoena da: «ez dut sekula ikasi ezezkia ematen, oso zaila egiten zait», dio Marimi Ugaldek.

Garaiak aldatuz doaz

Urte guzti hauetan, udal-letan nahiz herrietan gauzak asko aldatu dira. Udalen funtzionamendua eta interesak ez dira berak, eta herritarrek eurek ere, gero eta eskarera zorrotzagoak egiten dizkiete udal ordezkariei.

Baliarrainek eboluzio handia izan du Martzelino Dorronsorok alkatetzara hartu zuenetik hona. Bera alkate sartu zenean, «herria atzeraka zihoan», eta Foru Al-

dundiak herri txiki hauek «karga bat bezala» ikusten zituela dio Dorronsorok. Lan askori esker, herria hazi egin da, eta horrek Baliarrain «bizirik mantentzea» ahalbidetu du. Gaur egun herri txikiak lehen jasotzen ez zituzten diru laguntzak jasotzen dituzte, eta deszentralizatuagoa da dena. Baina orain, aldatetari esker «ikusi dute herri txikiak beharrezkoak direla herri handi bat izango bada».

Asteasun ere, urteak ez dira alferrik pasa, eta gauzak asko aldatu direla dio Iñaki Amenabarrek. Herritarrek herrian bizitzen gertatzen dira gaur egun, eta ondorioz, biztanleriak gora egin du, eta herriko eskolan ere haur gehiago daude. Honekin batera, industriagunea garatu egin da, eta 20 enpresa izatetik 100 enpresa izatera iritsi dira. Hitz batean, asteasunaren beharrei erantzuten dieten azpiegiturak ugari egin dira urteotan. Udalen funtzionamenduari dagokionez, berriaz, burokrasiak gora egin duela nabarmendu du Amenabarrek.

Marimi Ugaldek, herriaren aldatetaz haratago, kultur arloan emandako aurrerapausoak azpimarratu nahi izan ditu: «kultura, nolabait, ahate itxusia izan da beti; azken apurra eman izan zaio». Irurako Udaleko langileen talde lanaren bitartez, egoerari buelta ematea lortu dute herrian.

Araozak arazo eta aldatetako aldateta, alkate beterrano hauek beraien oroimenean izango dituzte urte hauetako bizipenak. Beren herriaren alde egin duten lana, izan dadila belaualdi berrien abiapuntu.



Iñaki Amenabar, Asteasuko alkatea. HITZA



Martzelino Dorronsoro, Baliarraingo alkatea. HITZA



Marimi Ugalde, Irurako alkatea. HITZA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Le apaindegia.** Esperientziadun pertsona behar da lanaldi osoz lan egiteko. Interesa duenak bidali dezala curriculumametxa@yahoo.es helbidera.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Konposta eta lorezaintza ikastaroak izango dira Urkizun

Konposta ikastaroa bihar hasiko da, eta lorezaintza ikastaroa, berriz, maiatzaren 19an hasiko da

I. Urkizu

Urkizu auzoko Alurtxiki elkarteak bi ikastaro antolatu ditu datozen asteetarako.

Bihar, maiatzak 12, konposta ikastaroa izango da arratsaldeko 19:30ean, Urkizuko Alurtxiki elkartearen bertan. Ordu eta erdiko saioa izango da, eta bertaratuek zabor organikoak berrerabiltzen ikasteko jakin beharrekoa ikasiko dute. Teoriazko azalpenak jaso eta gero, nahi duenak konposta egiteko kaxa jaso ahal izango du etxean. Ikastaro hau Tolosaldeko Mankomunitatearen eskutik eskainiko dute, eta interesa duen edonork 639 43 98 42 telefonoan eman dezake izena.

Lorezaintza ikastaroa, berriz, maiatzaren 19tik ekainaren 9ra bitarteko ostegunetan izango da. Loreak noiz kimatu eta nola zaindu behar diren, edo itzalaren eta eguzkiaren garrantzia zebaterainokoa den azalduko du Amaia Agirrek, teoria eta praktika uztartuz. Hilaren 16a da izena emateko azken eguna, 639 43 98 42 telefonoan edo alurtxiki@yahoo.es helbidean.

Harizpe elkarteak txangoa antolatu du Iparraldera

Hilaren 30ean Donibane Lohizune bisitatuko dute, eta sagardotegian bazkalduko dute

I. Urkizu

Tolosako Harizpe jubilatu elkarteak Iparraldera joateko irteera antolatu du, datorren maiatzaren 30erako.

Goizeko 09:00etan irtengo dira San Frantzisko elizaren aurretik, eta Tolosatik, zuzenean Iparralderantz abiatuko dira. Bertan, hango hainbat herri bisitatuko dituzte; besteak beste, Lapurdiko kostaldeko Donibane Lohizune.

Bazkaria Urnietan

Bazkalordurako, Gipuzkoara itzuliko dira, eta Oianume sagardotegian egingo dute otordua. Menuari dagokionez, sagardotegiko ohiko jakiak izango dituzte: bakailao tortila, legatza, txuleta, intxaurrak, irasagarra eta gazta.

Txangorako txartelak hilaren 30era bitarte izango dira eskuragarri, lekuak lehenago betetzen ez badira. Bazkideek, 33 euro ordaindu beharko dituzte, eta Harizpeko bazkide txartel eguneratua aurkeztu beharko dute. Bazkide ez direnek, berriz, 36 euro ordaindu beharko dituzte irteerara joateko.



Tolosaldea Sahararekin elkarteak kideak, prentsaurrekoan. ITZEA URKIZU

Saharar herria laguntzeko eta gertuagotik ezagutzeko egitaraua antolatu dute

Urteroko ekimenez gain, ekainaren 18an dantza eta musika izango da Euskal Herria plazan

Itzea Urkizu

Tolosaldea Sahararekin elkarteak hainbat ekimen antolatu ditu datozen asteetarako, Tolosa eta Bir-Lehlu herri sahararraren arteko senidetzearen 15. urteurrena ospatzeko.

Hilaren 20a bitarte, *Maiatza borrokan* ospatuko dute; ekainean, Saharara elikagaiak eta bestelako materiala bidaltzeko karabana Tolosatik abiatuko da, eta ekainaren 23an, berriz, *Oporrak bakean* programari esker haur sahararrak etorriko dira herrira, uda pasatzera.

'Maiatza borrokan'

Helburu nagusia, herritarrek «lurralde okupatuetan eta errefuxiatuen kanpamenduetan bizi duten egoeraz jabetzea» da. Egitarauaren barruan, hainbat herri-ekin-tza antolatu dituzte. Tolosaldean bezalaxe, Euskal Autonomia Er-

kidegoko beste txoko batzuetan ere izango dira saharar herria laguntzeko ekimenak, euskal fondoaren laguntzaz. Horrela beraz, Tolosan, Saharako lurralde okupatuetako jendearen testigantzak entzuteko aukera izango da datorren asteartean, hilak 17.

Azken egunean, maiatzaren 20an, elkarretaratzeko egingo dute Trianguloa plazan. «alderdi politikoaren nahiz nazioarteko agintarien hipokresia» salatzen. Aipatzen da, *Maiatza borrokan*-eko egitarauak iraungo duen hamar egunetan, *Erresistentziaren haima* bat egongo dela Trianguloan, eta interesa duen edozein herritarrek bertara sartu eta informazioa eskuratzeaz gain, sahararren testigantzak ezagutzeko aukera ere izango duela.

Elkartasun karabana

Hamabosgarren aldiz, eta urtero bezala, Saharako errefuxiatuen kanpamenduetara elikagaiak eta oinarriko materiala bidaltzeko karabana antolatu dute.

Aurten, karabana Tolosatik bertatik irtengo da Sahara alde- ra; datorren ekainaren 18an. Antolatzaileek, konpresak, pixoiha- lak, pasta, arroza, azukrea, sardi-

nak eta hegaluzea eskatu dituzte karabanarako. Aurten, sekula baino janari gehiago behar dutela nabarmendu dute, izan ere, Libian zeuden ikasle sahararrak kanpamenduetara itzuli dira, eta 8.000 ume gehiago izango dira bertan.

'Oporrak bakean'

Eskualdean 2000. urtean hasi ziren 7-12 urte bitarteko haurrei errefuxiatuen kanpamenduetatik irteteko aukera ematen. Beste errealitate bat ezagutzen dute horrela, eta nutrizio gabeziak ere asetzen zaizkie bi hilabetez.

Arduradunek diote, ez dela perfil zehatzik izan behar haur sahar bat etxean hartzeko. Aurten, sekula baino lehenago iritsiko dira haurrak, eta sanjoanetako txupinazoa eurek botatzea proposatu du udalak.

Azkenik, Bir-Lehlu eta Tolosa- ren arteko senidetzearen 15. urte- muga behar bezala ospatzeko, Tolosaldea Sahararekin elkarteak konzertua antolatu du ekainaren 18rako, Euskal Herria plazan. Alurr dantza taldearekin eta Oreka Tx-ekin batera, saharar musikaren erreferente bilakatu den Aziza Brahina taldea ere izango da.

bidera
zerbitzuak

Irtenbide biribilak

Banaketa
Komunikazioa
Itzulpenak
Aholkularitza
Publizitatea
Dei zentroa

www.bidera.eu

→ Laburrak

'Telebista ikusteko aholkuak' Samaniegon

HEZKUNTZA > Bihar, maiatzak 12, hitzaldia izango da Samaniego ikastetxean. EHUko Ana Aierbe Barandiaran irakaslea izango da hizlaria, eta telebista ikusteko aholkuek arituko zaie bertaratuei. 17:30etan hasi, eta 19:00etara bitarte iraungo du.

Haurreskolako matrikulazio epea zabalik

HEZKUNTZA > Abastoseko haurreskola berrian, matrikulazio epea etzi amaituko da, hilaren 13an. 31 plaza daude 0-1 urteko haurrentzat, eta 1-2 urtekoentzat, berriz, 12 plaza. Asteke egunetan, 09:00etatik 12:00etara bitarte joan ahal izango da haurreskolara, izen-emate orriak jasotzera edo ematera. Onartutako haurren zerrenda, ekainaren 17an agertuko dute jendaurrean.

Mendi Tour-eko azken pelikulak gaur izango dira

ZINEMA > Mendi Tour-en barruko mendiari buruzko film hobeenak ikusteko azken aukera gaur izango da. 19:00etatik aurrera, eta 5 euroren truke, eskaladari buruzko *The Pinacle*, *Uruca* animaziozko laburmetraia, Kangchenjunga eta Everesteko espedizioei buruzko *Big gailur hamaika istorio bidean* filma, eta muturreko kirolen inguruko *Play Gravity 2: The other side* izango dira ikusgai.

Irudia Agenda 21

ELIKADURARI BURUZKO HAUSNARKETA, ESKOLATIK UDALERA

Eskolako Agenda 21 egitasmoaren barruan, eskualdeko ikastetxeak ikasturtean egindako hausnarketa eta horren ondorioz sortutako proposamenak aurkezten ari zaizkie udal ordezkari. Astelehenean Alegiako Aralar

Institutua izan zen udalean, eta atzo Ibarako Uzturpe Ikastola eta Berastegiko J.A. Muñagorri ikastetxearen txanda izan zen. Ikastetxeetan elikaduraren gaia landu dute, eta helburu nagusia, elikadura ardatz hartuta, be-

rarekin erlazionatutako hainbat gai azterzea izan da. Horren adibide da, beste batzuen artean, kontsumo ohiturek tokian tokiko zein urruneko gizarte eta ingurumeneari dituzten eraginez jabetzea. HITZA

60 urtetik gorakoentzako bidaia antolatu du udalak Arantzazura

Hilaren 15ean egingo dute bidaia eta izena emateko epea bihar amaitzen da; 27 euro ordaindu behar dira

I. Garcia Amezketara

60 urtetik gorako amezketarrentzat bidaia antolatu du udalak Arantzazura. Hilaren 15ean izango da eta izena emateko epea bihar amaitzen da. Txartelaren prezioa 27 eurokoa da pertsona bakoitzeko.

Irteera 09:00etan aurreikusten dute. Lehendabizi plazan, gero Ergonen eta beherakoan Ugarten jasoko dituzte bidaiariak. Bidean gosari txiki bat egingo da eta zuzenean Arantzazura joango dira. Bertan, mezara joateko aukera izango da. Bazkaria Arantzazun egingo dute eta arratsaldean Azpeitira joango dira, Loiolako Basilika bisitatzea. 20:30ak aldera Amezketara abiatuko dira.

Olako industrialdearen berpartzelazioa, hurrengo bilkuran

Azkeneko osoko bilkuran hiritartze jarduketara programaren behin betiko onarpena eman zion udalbatzak

Imanol Garcia Amezketara

Olako industrialdea izenez ezagutzen den 9. sektorearen garapeneren azken pausoa falta da udalaren aldetik, hau da, berpartzelazioa. Datorren astean egingo den osoko bilkuran, legealdiko azkena izango dena, aurkeztuko dute berpartzelazioa udalbatzak onartu dezan. Berpartzelazioa burutu ondoren, Olako industrialdearen %15a udalarena izango da, eta beste %85a egingo jabeena. Modu horretara, enpresaren batek interesa izanez gero, industrialdea garatzen hasteko aukera dago.

Jesus Iñurritia alkateak esan duenez, «oso garrantzitsua da gaia. Ia legealdi guztia daramagu

aldaketa hauek egiteko. Kontuan izan behar da 30 langile dituen herriko enpresa batek interesa agertu duela industrialde berria kokatzeko».

Behin datorren astean berpartzelazioari haserako onarpena eman eta gero, hilabeteko epean alegazioak jartzeko aukera izango da, eta horren ondoren behin betiko onarpena emango lituzioke. Azken onarpen hori, beraz, udal hauteskundeetatik ateratzen den udalbatzak egin beharko luke.

Azkeneko oso bilkuran eman zion udalbatzak hiritartze jarduketara programaren egitasmoari behin betiko onarpena, bertan bildu ziren denen aldeko botoarekin. Aurretik, abenduaren 13an, eman zioten haserako onarpena.

Jendaurreko epean alegazio bakarra aurkeztu zen, hain zuzen ere 9. sektorearen hiru jabeetatik bik aurkeztutakoa. Udalbatzak ez zuen onartu alegazioa eta horren ondoren behin betiko onarpena eman zion egitasmoari.

Udako ludotekan izena emateko aukera zabalik dago

Ekainaren 15ean bukatzen da epea parte hartuko duten haur eta gaztetxoentzat zein begiraleentzat

I. Garcia Altzora

Altzoko Udalak udako ludoteka antolatu du aurten ere, Uda 2011 izenekoa. Ludotekan parte hartu nahi dutenek, haur eta gaztetxoek zein begiraleek, izena emateko aukera zabalik dute. Horretarako udaletxera jo behar dute ekainaren 15a baino lehen. Haur eta gaztetxo bakoitzak 38 euroko kuota ordaindu behar du izena ematearakoan.

Ludoteka ekainaren 27an hasi-

ko da eta uztailaren 27an bukatuko da. Ludotekan parte hartu nahi duten haur eta gaztetxoak 3 urtetik 14 urte bitartean izan behar dituzte.

Begirale bezala aritzeko 18 urte beteta izan behar dira eta euskara menperatzea beharrezkoa izango da. Aukeraketa egiterakoan eskarmentua aintzat hartuko da eta herritarrei lehentasuna emango zaie.

Aurten, begiraleei dagokionez, berrikuntza bat izango da. Izan ere, udala Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuarekin egiten ari den elkarlana dela eta, begirale gisa ariko direnak formakuntza ikastaro bat egin beharko dute. Hain zuzen, ekainaren 18an egingo da ikastaro hori.

XIII. HITZA Aste Santuko argazki lehiaketa

1. Saria Photokafe-k eskainitako **Sony DSC-HX1** argazki kamera.

2. Saria Markina-Xemeingo **Satzu landetxean**, bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia.

3. Saria **Amaroz jatetxean** bi pertsonentzako otordua.

Harpidedun bakoitzak argazki bakarra bidali dezake thargazkiak@hitza.info helbidera

Argazkiak bidaltzeko azken eguna: maiatzak 13

musika · karpak · jangela · errabola · jakitipikoak · kalimotxo · mola · 20 garagardo · mola · kontzertuak

IBARRAKO VIII. Garagardo Festa

Argazkiak: hitza

Irrintzi Elkarteak ibilbide luze eta motzeko martxa zikloturista antolatu du

Igandean izango da, eta egunean bertan izena emateko aukera dago. Malkar plazatik abiatuko da

Eneritz Maiz Villabona

Villabonako Irrintzi Txirindulari Elkarteak iaz heldu zion berriz ere zikloturista martxa antolatze-ari. Igandean, hilak 15, izango da, eta 83 kilometroko ibilbide motza eta 122 kilometroko ibilbide luzea prestatu dituzte. Bigarren urtez jarraian antolatuz, duela urte batzuetan galdurik egon den martxa berreskuratu dute.

Irteera eta helmuga, Malkar plazan izango dira, eta inskripzioak egitea ere bai. Izena emateko aukera 07:00etatik aurrera izango da, eta irteera neutralizatuari hasiera 08:00etan emango zaio. Kontrol itxiera berriz, 14:00etan izango da. Izena ematea aldeaz aurretik ere egin daiteke www.kirolprobak.com helbidean sartuz.

Federatua izan eta aurretik izena emanez gero, 15 euro ordaindu beharko da eta egunean bertan egingez gero, 20 euro. Federatu gabeen kasuan, aurretik 24 euro eta egunean bertan 29 euro ordaindu beharko dituzte.

Lasterketa bat ez denez, ez da denborarik hartuko eta edozeinek parte hartzeko aukera izango du. Parte hartzaile guztiak ordea,



'www.kirolprobak.com' helbidean izena eman daiteke. L. MONTES

NAN edo federatu txartela eraman beharko dute. Antolakuntzak ez du erantzukizunik izango inongo istripuetan. Eta derrigorrezkoa izango da ibilbide guztian zehar kaskoa eramatea.

83 edo 122 kilometro, aukeran Ibilbide laburrak 83 kilometroko luzera du, eta luzeak 122 kilometro izango ditu. Laburrean Villabonatik atera eta Gorosmendi, Huitzi, Azpirotz eta Alkiza pasa beharko dituzte. Luzean berriz, Gorosmendi, Usategieta, Saldias, Orokieta, Aldatz, Azpirotz eta Alkiza gainetatik pasa ostean iritsiko dira Villabonara.

Martxa bukatzean, parte hartzaile guztiak Olaederra kiroldegian dutxatzeko aukera izango dute. Era berean, parte hartzaile

guztientzat opari bat izango da, eta denen artean sari batzuk zozketatuko dituzte.

Horniketa guneak ere jarriko dituzte: Saldiasen, Azpirotzen eta martxa amaitez Villabonan.

Ardo dastaketa

Txirinduaz gain, gastronomiari ere begiratzen diote, eta gaur, ardo dastaketa egingo dute Irrintzi Elkarteak. Sumillerra, Essencia Ardo dendako Dani Corman izango da. Gaur bertan eman daiteke izena, eta 10 euro ordaindu beharko da.

20 laguntzako lekua bakarrik izango da. 19:30ean emango zaio hasiera dastaketari. Ardo ezberdinak dastatzeko aukera izango da Irrintzi Elkarteak bertan.

→ Laburrak

Kartel lehiaketako epea hilaren 16ra atzeratu da

ANOETA › Festetarako kartel lehiaketako epea atzeratzea erabaki dute antolatzaileek. Hilaren 16a izango da azken eguna eta 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira, udaltxean edo liburategian. Anoetako Herri Ikastolako ikasleek edo Anoetan erroldatutako pertsonak har dezakete parte. Kartelean, Anoetako Jaia 2011 agertu beharko da. Bi sari daude banatzeko. Erabili daitekeen teknika librea da, eta gehienezko neurria 29,7 zm. X 29,7 zmkoa izan daiteke.

Egun osoko BTT irteera Landetara Sagainekin

ASTEASU › Egun osoko BTT irteera antolatu du Asteasuko Sagain Mendi Taldeak larunbaterako. Landetara joango dira. Vieux, Boucau Les Bains eta Soustonskoak lakua zeharkatuko dituzte eta hondartzan bukatuko dute. Bainu jantziak eramatea gomendatzen dute. 30 kilometroko ibilbide erraza prestatu dute. 12 urtetik beherakoek, 5 euro eta 12 urtetik gorakoek, 10 euro ordaindu beharko dute. Irteera 08:00etan egingo dute autobusez udaletxe aurretik. Itzulerako ordua zehaztu gabe dago. Izen ematea, polikiroldegiko 943 69 34 00 telefonora deituz, egin beharko da osteguna baino lehen.

Trikitixa kontzertua eta Oinkari Dantza Taldea, Maiatza Saltsanen

Gaur Loatzko Musika eskolako kontzertua izango da Atxulondon; eta 'Ari du' ikuskizuna ostiralean frontoian

E. Maiz Zizurkil

Zizurkildarrak Maiatza Saltsanen bete-betean sartuta daude. Hilabete hasieratik ekitaldi ezberdinak izan dituzte, eta gaur, musikaren txanda izango da. Loatzko Musika Eskolako ikasleek Trikitixa kontzertua eskainiko dute. Atxulondo Kultur Etxean izango da, eta 19:30ean hasiko da emanaldia.

Ostiralean berriz, Villabonako Oinkari Dantza Taldeak *Ari du* ikuskizun berria eskainiko dute. 22:00etan hasiko da eta Zizurkil Goiko Intxaur Pilotalekuan izango da. Ikuskizuna ikusi nahi duenak sarrera erosi beharko du. Helduak 5 euro eta 14 urte artekoek 3 euro ordaindu beharko dute. Dagoeneko, astelehenean, Zizurkilgo Udal Bulegoetan, salgai daude.

Igandean San Isidro Eguna ospatuko dute. 11:00etan hasiko dute eguna mezarekin. Jarraian, aizkolari eta harri-jasotzaileak izango dira, eta ondoren bazkaria egingo dute bertsolari eta trikitilariekin.

Irudia › Villabona



AIZKARDITIK, ZUBEROARA

Villabonako Aizkardi Mendi Elkarteak, igandean, Zuberoan izan ziren. Hauze, Beguz, Iridoi, Argibel eta Montory zeharkatu zituzten. 20 kilometroko ibilbidea, zazpi orduren bueltan egin zuten eta bertan izan ziren kideak, eguraldi ederra lagun izan zuten, «gozatu» egin zutela adierazi dute Zuberoak dituen paisaia ederrak ikusiz. 32 lagun elkartu ziren. HITZA

Hilaren 20ean bukatzen da begirale izateko izen ematea

‘Oporretan euskaraz 2011’ udaleku irekietan lan egiteko Zizurkil en erroldatutako sei begirale behar dira

E. Maiz Zizurkil

Zizurkilgo Udalak, *Oporretan euskaraz 2011* udaleku irekietara begiraleak aukeratzeko deialdia zabaldu du. Begiraleak, ekainaren 27tik uztailaren 22ra bitartean burutu beharko dute euren lana.

Deialdi honetan hautatuak izaten diren lagunen zerrenda, 2012. urteko udara bitartean antzeko lanetarako sortzen diren beha-

rei erantzuteko erabiliko du Udalak.

Begirale izateko deialdian parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintzak ondorengoak dira: Zizurkil en erroldatua egotea, 18 urteak beteak izatea edo 2011. urtean betetzea, euskara ondo menderatzea eta azterketa teoriko eta praktikoa egitea.

Horrez gain, beste puntu hauek ere baloratuko dituzte: denbora libreko begirale eta zuzendari titulua izatea, heziketarekin zerikusia duten ikasketak, ikastaro, monografiko, ... izatea, antzeko lanetan esperientzia izatea eta langabetua edo ikaslea izatea.

Sei begirale kontratatuko ditu udalak, eta Zizurkilgo *Oporretan Euskaraz* duten lan esperien-

tziaren arabera hiru taldetan banatuko dituzte: Zizurkilgo *Oporretan Euskaraz* lan esperientziarik ez duen begirale bat kontratatuko da.

Bat edo bi urteko esperientzia dutenen artean, bi begirale kontratatuko dira. Eta Zizurkilgo *Oporretan Euskaraz* 3 edo urte gehiagoko esperientzia dutenen artean, hiru begirale kontratatuko dira.

Izenak emateko epea maiatzaren 20an bukatuko da. Eta azterketa hilaren 27an, 18:30ean izango da Atxulondo Kultur Etxean. Informazio gehiagorako eta izena emateko Aurrera Plazako Udal Bulegoetara jo beharko da edo goizez, 943 69 24 95 telefonora deituz.

Bihar hasiko da lau egun iraungo dituen Ibarako VIII. Garagardo Festa

700 laguntzat egongo da afaltzeko aukera; 20 garagardo eta 5 kalimotxo mota egongo dira herriko plazan

Asier Imaz Ibarra

Bihartik aurrera herritar ugari lana egitea tokatuko zaio Ibaran. Bihartik igandera, 100 lagundik gora ibiliko dira plaza inguruan, agertzen diren guztientzat zerbitzari lanak egiten. Horretarako dena prest dute: 700 laguntzako afariak; 250 garagardo kupel; 800 litro garagardo fresko; 20 mota; eta bost kalimotxo mota eta bi karpa erraldoi.

VIII. Garagardo Festako berezitasuna karpa hauetan aurkitzen da gainera; afaldarren erosotasuna bilatu nahian jangela modu berrian antolatuko dute aurtengoan.

18:00etatik aurrera

Garagardo Festako atak 18:00etan zabalduko dira egunero. Afariak aldiz, 20:00etan hasiko dira zerbitzatzeko. Urteroko me-

↓ Garagardo Festa

MENUA

- Txorixo muturra; Ibarako piparrak; hiru saltxitxa mota eta ukondoa.
- Gazta eta irasagarra eta euskal pastela.



Ibarako III. Garagardo Festako argazkia. | TERRADILLOS

nua egongo dela azaldu dute antolatzaileek, hau da, herriko produktuekin batera ukondoa eta saltxitxak.

Garagardoarekin ere gauza bera gertatzen da, Euskal Herriko markekin batera kanpotik ekarritakoak egongo dira. Ohiturari jarraituz, 5 kalimotxo mota ezberdin jartzea erabaki dute aurtengoan. Euskal Herrian beste inon oraindik ez da horrelakorik egiten. Kalimotxoak, ardo ezberdinez (Nafarroa, Araba, Errioxa, gorria) eta kola ezberdinez (Pepsi, EH-kola, Coca Cola) nahasturik egongo dira.

Gaztetxean kontzertuak

Auzolanean antolatzen den ekimena izaki, bertan lortzen den diru guztia herri mugimenduan lanean dabilen taldeentzat bideratuko dute. Azken urteetan bezala, adin guztietako ibarta-

rrek bat egongo dute helburu horrekin. Antolatzaileen esanetan, «pozagaria da inongo norbanako interesik gabe horrenbeste jende lanerako elkartzea». Guzti hauei aurrez eskerrak eman nahi izan dizkiete. Eskualdeko herritarrek ere Garagardo Festara gonbidatu nahi izan dituzte.

Ibarako Gazte Asanbladak ere bere ekarpena egin nahi izan dio VIII. Garagardo Festari. Horrela, ostiralean eta larunbatean kontzertuak antolatuko dituzte. Hilaren 13an, Phillhead eta Egurra ta kitto izango dira gaztetxean, 23:00etatik aurrera. Maiatzaren 14an, Itzel berbena taldearen dantzaldi saioa izango da gaztetxean, gaua girotuko duen musika dantzagarriarekin. Hauek ere beraien gonbitea luzatu nahi izan dute: «Beraz, festa on bat igaro nahi baduzu etor zaitez Ibarara. Animatu gazte!».

→ Laburrak

Bertso afarira joateko txartelak salgai daude

BERASTEGI › Urepele biltokiak bertso afaria antolatu du maiatzaren 21ean, 21:00etan, Urepele biltokian bertan. Bertsolariak: Adur Gorostidi, Mikel Artola, Beñat Iguaran eta Iñigo Gorostazu izango dira. Afarirako sarrerak salgai daude, eta maiatzaren 15 da tiketak erosteko azken eguna. Biltokijuntako edozeini eskatu behar zaizkio. Bazkideentzat 18 eurotan daude, eta bazkide ez direnentzat, berriz, 23 eurotan.

Kantu-jirako entsegua, bihar 20:00etan

TOLOSA › Maiatzeko azken larunbateko kantu-jirako entseguak bihar, hilak 12, eta maiatzaren 26an izango dira. Saiok Tolosako Musika Eskolan (Rondilla kalean) izango dira, 20:00etatik aurrera. Esan beharrik ere ez dago, euskal abestiak kantatu eta ikasi nahi dituzten guztiek atek zabalik dituztela parte hartzeko.

Ingurugiro legediaren inguruko ikastaroa

TOLOSA › Lehiakortasuna ingurumen irizpideak sartuz hobetu nahi duten enpresentzako ikastaroak antolatu dituzte, 2010-2014 Ekofizientzia Programaren barruan. Ildo horretatik, Tolosaldea Garatzen eta Iho-bek, gaur egun indarrean dagoen ingurugiro legeriari buruzko ikastaroa antolatu dute Tolosan gaur, asteazkena, 09:30ean; Tolosaldea Institutuan, Santa Luzi, 17 helbidean.

Txosna Batzordearen bilera, gaur 19:30ean

IBARRA › Txosna Batzordeak bilera egingo du gaur, asteazkena, 19:30ean kultur etxean. Herriko taldeak bertara deitu dituzte batzordeko kideek. Bertan Gazte Festetako eta Jailetako txosnen inguruan hitz egingo da.

Aste Iraultzailearen barruko hitzaldia, gaur

TOLOSA › Euskal Herria Sozialista eta Engels Ateneoak Aste Iraultzailea antolatu dute. Gaur ere izango da hitzaldia, 19:30ean, Engels Ateneoan. Ibon Artola izango da *Langile mugimenduaren alternatiba erasoan aurka* gaiaz hitz egiten.

Igandean mendi irteera antolatu du Alpinok

TOLOSA › Alpino Uzturrek mendi irteera antolatu du igandean honetan. Txangoa Turruncunetik hasi eta Arnedillon bukatuko da. Peña Isasa (1.474 m) eta Peñalmonte (1.276m) mendiak igoko dira. Arnedillon putzu termaletan bainatzeko aukera izango da. Autobusaren irteera San Frantziskotik 07:30ean izango da. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute, ez direnek 13. 94365 27 89 deitu edo alpinouzturre@hotmail.com era idatzi behar da.

Etxeberría presoaren senideen istripua

VILLABONA › Pasa den igandeko 05:00etan, Estremerako espetxean aurkitzen den Lander Etxeberriaren gurasoek istripua izan zuten Lerma inguruan. Zorionez ez dute kalte fisikorik pairatu eta bisita burutu ahal izan zuten.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	11°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**




'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia XIII. HITZA Argazki Lehiaketa



LANDETATIK PORTUGAL ALDERA

Maitane Garmendia Landetan izan zen Astea Santuan, eta Capbretonen ilunabarrean ateratako argazkia bidali du XIII. HITZA Argazki Lehiaketa parte hartzeko. «Surfisten gozamenerako leku bikaina da», esan du. Berastegiko Olatz Etxeberria, aldiz, Portugaleko Algarbe aldean

izan zen, eta egusenti eder honetaz gozatzeko aukera izan zuen. Gogoratu argazkiak bidaltzeko azken eguna ostirala izango dela, eta asteartean, hilak 17, argitaratuko ditugula zortzi argazki finalistak. Sari bikainak irabazi ditzakezue, animatu eta parte hartu!^{M.G./M.G.}

Agenda

DEIALDIAK

- **Berastegi.** *Energia berriztagarriak nire etxean nola sartu* hitzaldia Jokin Aldazabalen esku-tik (euskaraz) gaur, eskolako ganbaran 19:00etan. Hitzaldiak irauten duen bitartean begiralea egongo da haurrekin.
- **Tolosa.** Urkizuko eta Aldabako auzotarak, hilaren 12an, 19:30ean, konposta ikastaroa egingo dute Urkizuko Alurtxiki elkarteak. Izena emateko deitu 639439842 telefono zenbakira.
- **Tolosa.** Udaberri eta udan, etxeko lorategi, terraza edo parretak txukun eta polit edukitze-ko ikastaroa antolatu dute Urkizuko Alurtxikiko elkarteok. Ostegunetan, hilaren 19an hasi eta ekainaren 9a bitartean, 3 or-

duko saioak izango dira, praktika eta teoria uztartuz. Hilaren 16a da izena emateko azken eguna: alurtxiki@yahoo.es edota 639 43 98 42 zenbakian.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Betelu.** Carrillo. A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan Izadi!

Izadi Raya Etxaniz. Gaur 2 urte.

Zorionak potxolina!! Segi beti bezain *xalada*. Besarkada handi bat osaba eta izebaren partez. MUAA!!



HITZAK harpidedunentzat **bi pertsonentzako afaria** du

Ibarrako VIII. Garagardo Festa

Maiatzaren 12tik 15era

saria eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak



harpidedunak
TXOKOA hitza

